

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 42. atala

DATA: 2025/05/23

GUREAN

MALANDAIN - PLANETA DANTZAN

DBHko 1. mailako ikasleek "Planeta dantzan" programan parte hartu dute azken hilabete hauetan. Ikasturtean zehar koreografia prestatu dute Malandaingo dantzari batek lagunduta eta emaitza aste honetan erakutsi dute Biarritzeko La Gare du Midi antzokian. Programa hau ingurumen-hezkuntzako (Cristina-enea fundazioa) eta arte-sorkuntzako eragileen (Malandain Ballet Biarritz) arteko lankidetzaren bereziagatik nabarmentzen da. Programa honen helburua ikasleak ingurumenaren ezagutza eta babesean sentsibilizatzea da.



GURE INGURUAN

EUSKARALDIA ALTZA

MAIATZAK 23:

19:00 HERRERAKO KANTU JIRA Euskal Giroa Elkartetik hasita

MAIATZAK 24:

12:00 AUDITZ-AKULAR PARKEAREN EGUNA: PORROTX eta bere lagunak bisitarekin!

17:00 "Euskaraldia: Jolastuz euskara ikasi eta erabili" Altzako Gaztelekuan

MAIATZAK 25:

11:30 Ibilaldia: bidean dauden auzoko historiaren aztarnak Intxaurrondon (IZBE), Ategorrietako tren geltokitik.

14:30 Auzo bazkaria, Intxaurrondoko Extremeño jatetxean.

VINTAGE MARKET

NON: DONOSTIA-AMARA PLAZA
NOIZ: MAIATZAK 24-25



Vinokilo, Europako bigarren eskuko arroparen azokarik handiena, Donostian izango da bihar eta etzi. Hain zuzen ere, Amara Plaza hotolean jarriko dute, 10:00-18:00 bitartean. V

Bertara sartzea doakoa izango da, baina aurrez online erreserba bat egin beharko da, azokara joateko ordutegia aukeratuz. Hala ere, doako sarreraren kopurua mugatua izango da, eta ondoren, sarrerak azokan bertan erosiz gero, 3, 5 eta 7 euroko prezioan egongo dira eskuragarri.

